

MEGAJOERAK BEGIRADA KRITIKOAREKIN: EZAGUTU HORIEN ESANAHIA, ERABILGARRITASUNA ETA BALDINTZATZEN GAITUZTEN ALBORAPENAK

EMAN IZENA



EGUNA ETA ORDUTEGIA	Asteazkena, apirilak 22, 9:00etatik 14:00etara.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia. Laida Bidea 203, Zamudio, Bizkaia. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea.
IRAUPENA	5 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentziako bazkideentzat bakarrik: - Gaurkoaz haratago ikusteko eta euren jardueran etorkizuneko ikuspegi bat txertatzeko kezka dutenak. - Ingurunean gertatzen diren aldaketek eragiten dietela ulertu, eta beraz, gertatzen denari adi egon nahi dutenak. - Megajoera horietan sakontzeko kezkarekin eta sektore edo jarduera ezberdinetan izan dezaketen eraginarekin, estrategia eta erabakietan pentsatzen dutenak. - Barneratuta ditugun alborapenak gaindituz, ikuspegi global eta etorkizuneko txertatu nahi dutenak. * Gehienez, bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Etorkizunen pentsamendua zer den eta erakundeetan berrikuntzarako eta lehiakortasunerako duen garrantzia ulertzea.
- Megajoerak identifikatzeko eta haien jarraipena egiteko ezagutzak eskuratzea, eta erakundeen erabakietan txertatzea.
- Aurrez ezarritako onarpenak zalantzan jarri edo berriz planteatzea.
- Inguruan ditugun megajoera nagusiak ezagutzea eta nola eragiten diguten ulertzea.



MEGAJOERAK BEGIRADA KRITIKOAREKIN

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

- Etorkizunen pentsamendua: zer da eta zeintzuk dira hauek erakunde batean ezartzeko gakoak.
- Megajoerak: zer diren, nola identifika daitezkeen eta euren bilakaera nola zaindu, norberaren erabakietan txertatzeko.
- Begirada propioa eta pertzepzioa zabaltzea seinaleak hautemateko, agertokiak sortzeko eta etorkizunari begira lan egiteko.
- Megajoera nagusien inguruko eztabaida: zeintzuk diren eta nola eragin diezaieketen erakundeei.

NOREKIN



ANGÉLICA LÓPEZ SOBRADO

Adimen Lehiakorreko zerbitzuen koordinatzailea TECNALIA Research & Innovation-en


Industria Ingeniaria, Industria Antolaketako espezializazioarekin, Bilboko ETSIn eta Proiektuen Kudeaketako graduondokoa. Zaintzako berriarazko azterlanak egin ditu, joera teknologikoak zein merkatukoak aztertuta, IKT prozesuak definitu eta hedatu ditu eta prestakuntza eman du. UNE 166006:2011 I+G+Bren kudeaketa arauaren berrikuspentaldetako kide da. Esperientzia du berrikuntza kudeatzeko eta sormena garatzeko ereduak, metodologiak eta tresnak garatzen.



UXUE IBARROLA

Agora Desarrollo Organizacional-eko zuzendaria

Antolakuntza eraldatzen eta lidergoa garatzen laguntzen du. 16 urte baino gehiagoko esperientzia du enpresa publiko eta pribatuei laguntzen, osasuna, energia berriztagarriak eta bankak bezalako sektoreetan, kultura-aldaketako prozesuak, taldeen lerrokatzea eta lidergo erresonantea bultzatuz. Zuzendaritza-*mentoringean*, gatazken kudeaketan eta sormen- eta berrikuntza-programen diseinuan aditua.



OIHANA BLANCO

Berrikuntza-politikan proiektu-arduraduna Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzian

Ekonomian lizentziaduna EHU-n, Kanpo Merkataritzan eta Enpresen Nazioartekotzean masterra Bilboko Merkataritza Ganberan, eta master in Business Innovation Deusto Business School-en. Innobasque hainbat arlotako proiektuen arduraduna izan da, hala nola I+G+B, ekonomia zirkularra eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako politiken nazioartekotzea. Duela 5 urtetik zaintza- eta prospektiba-proiektuen arduraduna da, eta arlo horretan trebatu da Manchesterreko Unibertsitatean.